

Kataluniak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea du

Azken hilabeteetan, mundu mailako arreta, baita Europar Batasunarena ere, Ukraina eta Eskoziara begira egon da. Bi herrialde horietan jazotako gertaerek antzekotasun ugari dituzte, baina desberdintasun garrantzitsu bat nabarmendu behar da: Eskozian, herrialdearen independentziari buruzko auzia erreferendum baten bitartez erabaki zen, inplikaturako alderdien arteko akordio batean oinarrituz. Ukrainan, ostera, bide demokratikoen orde, indarkeria bihurtu zen protagonista, eta horrek kalte materialak ez ezik, heriotzak ere eragin zituen.

EBk eta Estatu kideek eredugarritzat jo zuten Eskoziako bidea, eta, aldi berean, Ukrainan erabilitako indarkeria tinkotasunez gaitzetsi zuten, Errusiaren kontra mota guztietako zigorrak ebatziz, Errusia baitzen –haien iritziz– gatazka areagotzearen arduraduna.


Azaroaren 9a hurbiltzen den heinean, begi guztiak Kataluniara begira jarri dira. Tamalez esan behar dugu Espainiako Gobernuak, dirudienez, ez diola Eskoziako ereduari jarraituko –bere Estatu botereak erabiltzerakoan–; aitzitik, ahaleginak egiten ari da ez dadin posible izan herri katalanak bere etorkizuna erabakitzea.

Autodeterminazio eskubidea oinarritzko giza eskubide bat da, eta ezin da inolaz ere zalantzan jarri! Madrileko Gobernuak Kataluniak Espainia izaten jarraitzea nahi badu, orduan horretarako baldintzak sortu behar ditu, eta herri katalana Espainian gelditzeko konbentzitu behar du bide baketsu eta demokratikoen bitartez. Gauza bat argi eta garbi gelditu behar da: arazoak konpontzeko Europak erabiltzen duen moduan elkarrizketa eta adostasuna aplikatzen dira, oinarritzko giza eskubideak errespetatuz Nazio Batuen Gutunaren espirituaren barruan.

Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarraren 1.881 Gomendioa (2007) gogoratu behar da. Bertan adierazi zenez, "azken urteetan European Estatu berri ugari sortu dira; orain, independentzia eta Estatu izaerei dagokienez nazioarteko komunitatearen onarpena jaso duten zenbait nazio berri agertzeari aurpegi eman behar diogu". Horrez gain, testu berean azaldu zenez, "Biltzarrak Estatu europarren izaera demokratikoa azpimarratzen du, izaera horrek eskatzen baitu, hain justu ere, horrelako egoerak beti prozesu demokratikoak erabiliz konpontzea, besteak beste, hauteskundeak, erreferendumak, konstituzio eta erakunde erreformak aplikatuz, eta entitate berriaren sorkuntzan horrelako prozesuek herritarren parte hartzea izan behar dute oinarri, azken batean herritarrek baitute erabakitzeke eskubidea".

Gure ustez, hori ez dagokio soilik Eskoziari, baita Kataluniari eta gainerako eskualde guztiei ere, bertako herritarrek eskualdearen estatusa aldatzeko nahia agertzen badute, dela autonomia handiagoa, dela independentzia lortzeko.


2014ko azaroaren 5a




Andoni Ortuzar
Euzko Alderdi Jeltzalearen Presidentea



François Alfonsi
ALE-ren presidentea (Alliance Libre Européenne)



Jean-Pierre Levesque
Institut Culturel Bretagne



Yves Laine
Ordre de l'Herminette



Balázs Izsák
Szekler National Council-aren presidentea